LITZENTZIAK ETA BAIMENAK: EZAGUTU ETA ERABILI ZEURE ESKUBIDEAK

1	*Gaisotasun edo istripua izanagatiko lizentzia*. (40. Art.) ➢ Lanerako Ezgaitasun Iragankorreko lehen 3 hilabeteetan, lansarien %100a, hainbanaketak sartzen. ➢ Gaixotasun baja jarraitu ezkero, hilabete bat gehiago %100a kobratzen, aintzinatasuneko hiru urteko bakoitzengatik.
2	*Amatasunagatiko baimena*. (41.3. Art.) ➢ Iraupena: 17 aste. 18 aste garaia baino lehenagoko erditze kasuan. Erditze anitza: 2 aste gehiago haur bakoitzeko, bigarrenetik hasita. 19 aste sei urtetik beherako ume bat edo urte gehiago eduki arren ezindua, elbarri edo gizartean edo familian txertatzeko arazo handiak badaude. Garaia baino lehenagoko erditzea edo ospitalizazioa: ospitaleko altaren egunetik zenbatzen da. ➢ %100a kobratzen da baita antzinatasuna ere. Oporretako hilea (abuztua) ez da xurgatzen. ➢ Onura: 6 astetako derrigorrezko atsedenaldia amarentzat, haurra jaiotzen den unetik. Gainontzeko asteak, langilearen erabakiaren arabera. Aitak erabili dezake baimenaren zati bat aldi berean edo elkarren segidan. Ama hilez gero, aita baliatu ahal izango da baimenaz, osoaz nahiz zati batez. Enpresarekin bat etorrita, baimena aldi partzialetan hartu ahal izango da. ➢ Sei urtetik beherako ume bat edo urte gehiago eduki arren ezindua, elbarri edo gizartean edo familian txertatzeko arazo handiak dituen ume bat adoptatu edo hartzen bada: ebazpen administratiboa edo judiziala sortzen unetik kontatzen da, salbu eta adopzioa nazioartean egiten bada eta desplazamendua behar denean, lau aste lehenago hasi ahal izango da etenaldia.
3	*Edoskitzeagatiko lizentzia (41.3 Art.)* ➢ Egunero ordubete irteteko eskubidea 9 hilabete baino gutxiagoko haur bat zaintzeko. Bi ordu erdi izan daiteke. Baliatzeko aldia eta ordutegia zehaztea landileari dagokio. Ohiko lanaldia ordu erdiz gutxitu dezake. ➢ Amak baimen honen ordez amatasunagatikoa 2 astetan luza dezake. ➢ Erditze multiple: iraunaldia handitu egingo da proportzioan.
4	*Aitatasunagatiko baimena*. (42.b eta 41bis Art.) ➢ 42.b art.: aitak bost egun naturaleko baimena hartzeko eskubidea du; egun horiek jarraian hartuko ditu, haurra jaio edo etxera heldu eta ondorengo 15 egunen barruan. Baimen hori ordaindutako bi egun gehiago luza liteke, zesareaz erdituz gero. ➢ 41bis art.: Aitatasunagatiko etenaldi etengabea : 13 egun jarraian edo 2 gehiago seme-alaba bakoitzeko bigarrenetik hasita. 42.b artkuluan erregulatutako denboraldiarekin zenbatzen da.
5	*Norberaren ezkontzeagatiko lizentzia (42.a art.).* ➢ 15 egun naturalak.
6	*Senideen ezkontzagatiko lizentzia (42.g art.).* ➢ Egun 1 odol-ahaidetasuneko 2.mailara arteko senide baten ezkontzagatik.
7	*Senideen heriotza, gaitz larri edo kirurji ebakuntzagatiko lizentzia (42c art.).* ➢ 3 egun, jazoeraren 24 ordu lehenago edo ostean (bestelako adostasuna egon ezik), odolkidetasun, ahaidetasun edota bizikidetasuneko bigarren mailararteko bati gertatuz gero. ➢ Odolkidetasunean lehenengo mailako ahaidearen heriotzagatik, 2 egun gehiago. ➢ Lurralde historikotik kanpo irten behar izanez gero, 2 egun gehiago. ➢ Hiru egun senitartekoei egindako ebakuntzengatik ,hauek ospitalizaziorik behar ez dutenean
8	*Publikoak nahiz norberaren ezinbestean bete beharreko eginkizunak burutzeko baimena (42h art.).* ➢ Behar den beste denbora, lan-orduetatik kanpo ezin bada egin (notaria, adibidez). ➢ Odolaren emaitzak edo epaimahikide funtzioak ezinbestean bete beharreko eginkizunak dira.
9	*Ohiko bizilekua aldatzeagatiko lizentzia (42.f art.).* ➢ Egun 1.
10	*Lan sindikalengatiko lizentzia (langileen estatutua, leberazioen akordioa)* ➢ Delegatu sindikalentzako kreditua: 100 langile bitarteko enpresak, 15 ordu hilean. 101 eta 250 bitartekoak, 20 ordu. 50 baino gehiago, 30 ordu. ➢ Liberazio sindikalen akordioa: delegatu bakoitzak bere kreditutik bi ordu ematen du gure

	liberatuek erabiltzeko. Ohiko bilerak egiteko, astero goiz edo arratsalde bat erabil daiteke. Sindikatuko goi mailako organo baten izateagatik, beste egun bat gehiago. Behar den bezala programatuta jarduera hezigarrietarako, 3 egun gehiago. ➢ Ohiko marku hori legezkoa baino txikiagoa da (Langileen Estatutua). Orokorrean, kredituaren geratzen diren orduak, kasu zehatz desberdinetan eta, sindikatuak ohiko markua gainditu behar duela esaten duenean (mobilizazioak, kongresua) baino lehezkoa gainditu gabe, ez dira agortzen behar den moduan. ➢ Sindikatuaren agiria behar da eta, ahal bada, 5 egun lehenago eskatu.
11	*Hobekuntza-ikastaroengatiko lizentzia (45.art.).* ➢ Orduak lanalditzat hartuak izango dira (ordainketa eskubidea), ikastetxearen titularrak hori onetsiz gero. Langileak bekaren bat badu, bekaren eta lansariaren arteko aldea ordainduko da bakarrik. ➢ Baimena beti emango da IRALEko edo Jaurlaritzak ordainduriko beste ikastaro batzuetara joateko. ➢ Eskaintza titularrak berak egiten badu edo langilearekin adostuta bada, ikastaroak sortutako gastuak eskuratzeko eskubidea (joan-etorri, egonaldi, mantenu eta matrikula-gastuak).
12	*Azterketak egiteko baimena (Lanbide-mailako titulua lortzearren ikasketa ofizaletarako) (46.art.).* ➢ Egun 1 azterketa bakoitzerako. 3 egun, 150 km.tik gorako bidea egin behar izanez gero. Beti matrikula egiaztagiria presentatu behar da.
13	*Lanbide-mailako hobekuntzarako jarduerak egiteko (52 eta 54. art.).* ➢ Ikasturte batean eszedentzia hartzeko eskubidea, kobratu gabe baino antzinatasun onarpenaz. Ikastetxean bost urtetik gora etengabe lanean ibilitako langilea behar du izan. Lanean berez eta besterik gabe berriro hasteko eskubidea, aintzinatasuna kontutan hartuz. ➢ Urtea baino gutxiagoko eszedentziarako eskubidea, beka edukitzeagatik, ikasbidaia egiteko edo espezialitateari berariaz dagozkion hobekuntza-ikastaroak egiteko. Antzinatasuna zenbatzen da eta akreditatu egin behar da.
14	*Adin txikikoen, elbarrien edo odolkidetasuneko 2. mailararteko senideen zaintzagatiko lanaldi-murrizketa (44. art.).* ➢ Lanaldi eta soldata murrizketa proportzionala 1/8 eta ½ en artean. ➢ Ordutegiaren ezarpena langileari dagokio.

	➢ Ohiko lanaldira itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago jakinarazi beharko dio enpresari.
15	*Medikuarengana joateko edo osasun-azterketak egiteko baimena. (42.e eta 42.d art.).* ➢ Jaioaurreko azterketak, erditzerako prestakuntza...haurdunentzat. (42.e art.) ➢ Mediku-kontsultarako: behar-beharrezko denbora, laneko orduen barruan izanez gero. (42.d art.).
16	*Norberaren eginbeharretarako eta ordaindu gabeko baimena.* ➢ 15 egun arte, soldatarik gabe, 5 egun lehenago eskatuz. ➢ Berez eta besterik gabe lortzen da, langileen %5a baino gehiago ez badago egoera horretan.
17	*Borondatezko eszedentzia (50. eta 51. art.).* ➢ Gutxienez ikasturte baterako eta gehienez bost urterako. Lehenengo bietan, lanpostua gordetzen da. ➢ Baldintzak: urtebeteko aintzinatasuna eta aurreko lau urteetan hartu ez izana. Idatziz eskatu beharko da, bi hilabete aurretik behintzat. Itzultzeko: 3 hilabete lehenago jakinarazi, lanpostua gordetzeko eskubidea mantentzeko.
18	*Seme-alaben, elbarrien edo odolkidetasuneko 2. mailararteko senideen zaintzagatiko eszedentzia (53. art.).* ➢ 3 urte seme-alaba bakoitzeko, amatasunagatiko baimena (edoskitzeagatiko bi asteak barne) bukatu ondorenetik hasita. ➢ Ondorengo seme-alabek beste eszedentzia bat hartzeko bidea emango dute. ➢ Aitak edo amak eska dezake, eta aintzinatasuna kontutan hartzen da.
19	*Derrigorrezko eszedentzia (48. eta 49. art.).* ➢ Kasuak: kargu publikoren baterako hautatua izanagatik, eginkizun sindikaletan jarduteagatik, gaisotasunagatik behin-behingo elbarritasun-egoera egon bitartean, odol-ahaidetasuneko 2. mailara arteko senideren bat zaintzeko (urtebete gehienez). ➢ Lanpostua gordetzeko nahiz aintzinatasuna kontutan hartzeko eskubidea emango du.

STEE-EILAS